

## **Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2014ko urriak 1ko bileraren ondorio nagusien sintesia**

### **Puntu bakarra: abandonatutako animaliak batzeko zerbitzuaren kontratua**

Eudelen eta animalien aldeko elkarteen azken informazioak eta aurrekariak laburbildu ostean, bertan dauden udal ordezkari guztien esku-hartzeen txanda egin da, eta udal bakoitzaren egoeraren berri eman dute eta kontratu bateraturako ikuspuntuak azaldu dituzte.

Oniritzia eman zaio Eskualde Bulegoak pleguen proposamen berria prestatzeari, bileran sortutako orientazioak jasoz.

Interesgarritzat jo dira abandonua murrizteko eta zerbitzuaren kostua finantzatzeko orduan efektu partziala duten prebentzio-neurri osagarri batzuk: 1) Txakurren errolda eta txipa jartzea sustatzea, kanpainen bitartez; 2) Abandonuari isun ekonomikoa jartzea. 3) Antzutze-kanpainak.

### **Beste gai batzuk**

#### **1. Frakzio organikoa batzeko zerbitzuaren kontratazioa.**

Batzordearen bileraren amaieran, Kontratazio Mahaia eratzeko erabaki da. Presidente Itziar Duoandikoetxea izan da, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal S.L.ren Administrari Solidarioa; eta Mahaikideak, berriz, bertaratutako udalen ordezkariak: Asier Albizua, Miguel A. Herrero, Josu San Pedro Montalban eta Ekaitz Mentxaka. Idazkari gisa, Victor Aierdi aritu da, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal erakundearen koordinatzailea.

#### **2. “Nerbioi-Ibaizabal, eskualde adimendun, konektatu eta eraginkorra” proiektua, Berringurumena 2014 ekimenerako**

Oniritzia eman zaio laguntza-eskaera prestatzen eta aurkezten jarraitzeko lanari, eta “Smart City” kontzeptuan sakontzeari.

#### **3. Esetek trebakuntza**

Esetek enpresarekin egingo den trebakuntza-jardunaldirako hitzordua gogorarazi da: urriaren 2an (osteguna), 09:00etan.

#### **4. Beste batzuk**

Aukera aprobeztatu da, bilketa organikoari buruzko kanpainan egin gabe dauden gaiak zehazteko eta koordinatzeko: datak, tailerrak, U-14ko prentsaurrekoa eta beste zenbait gai.